



Ikasmina DoKS:

Gipuzkoan bizitza osoko ikaskuntzari
buruzko dokumentuak

**Pertsonen parte
hartzea bizitza osoan
zeharreko ikaskuntzan
Gipuzkoan**

57. dokumentua

2018ko apirila



AURKIBIDEA

1.	Aurkezpena	3
2.	Ikasten duten pertsonak	4
2.1.	Bizitza osoko ikaskuntzan parte hartzea	4
2.2.	Ikaskuntza, adina eta prestakuntza	6
2.3.	Ikaskuntza eta lan-merkatuarekin duen harremana	8
3.	Nork ikasten du?	9
3.1.	Ikasten duten pertsonen karakterizazioa	9
3.2.	Ikaskuntzako jardueretan parte hartzen ez duten pertsonak	11
3.3.	Ez ikasteko arrazoiak	13

1. Aurkezpena

Ikasmina Gipuzkoan egindako ikerketa-proiektu bat da, eta ikaskuntza eta gaitasunak, pertsonak eta kalitatezko enplegua jorratzen ditu. Proiektu honen bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentuaren helburu jakin honi eman nahi dio erantzuna: «*Pertsonentzako, enpresentzako eta lurraldearentzako funtsezkoak diren eskumenen garapena sustatzeko mekanismoak ezartzea, ikasketaren bidez aldeko testuinguruak sortuz, balio bereizgarria sortzea ahalbidetuz*». Horretarako, lau helburu espezifiko zehaztu dituzte:

- Gipuzkoan bizi diren helduek zer jarduera egiten dituzten jakitea, baita haien motibazioaren, egiteko itzaropenen eta gaikuntzaren berri izatea ere;
- Ikaskuntzaren garrantzia eta ikastearen balioa zabaltzea Gipuzkoan, bizitza-kalitatearen eta garapen jasangarriaren trakzio-ardatz gisa;
- Ikaskuntzarako kultura ikusgarri egitea eta partekatzea, Gipuzkoako herritarren eta gizartearen eguneroko martxaren barruan, izaera partekatua eta gizarte eraldatzeko duen balioa aintzat hartuta;
- Ikaskuntza Gipuzkoako gizarteren balio transbertsal gisa balioestea, eta pertsonen, erakundeen eta gizarte-eragileen garapen-ardatz gisa ezartzea, Gipuzkoaren segimendu eta aurkezpen sistematikoaren bidez inguruko ekonomietan eta beste erreferentzia aurreratu batzuetan.

Alde horretatik, 2008an martxan ipini zenetik, Gipuzkoako helduek (25 eta 74 urte bitartekoek) egindako ikaskuntza-jardueraren segimenduari heltzen dio ikerketa-proiektu honek; hala, kontsulta bat egiten da urtero, urteko lehen hiruhilekoan. Dokumentu honetan, pertsona horiek 2018ko ikaskuntza-jarduerekin lotuta ageri dituzten alderdi erabakigarriak daude jasota, hain zuzen, emaitza orokor gisa aurkeztuta.


2. Ikasten duten pertsonak

2.1. Bizitza osoko ikaskuntzan parte hartzea

Gipuzkoan, hamar heldutik lauk ikasten dute

Gipuzkoako pertsona helduek (25-74 urte) bizitza osoan zeharreko ikaskuntzan¹ izandako parte-hartzea % 41,0ekoa izan da, 2017an erregistratutako ehunekoaren antzekoa (% 40,7).

1. grafikoa Ikasten duten pertsonak, sexuaren arabera



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

¹ Bizitza osoko ikaskuntzak hezkuntza-titulu ofizial bat eskuratuz bideratutako ikaskuntza-jarduerak biltzen ditu (ikaskuntza arautua), baina baita modu antolatuan eta jarraituan egiten direnak ere, nahiz eta titulu ofizialik eman ez (irakaskuntza ez-arautua).

Emakumeen partaidetza handiagoa da gizonezkoena baino

Atxikitako grafikoan ikus dezakegun moduan, gizonezkoek ikaskuntza-jardueretan izan duten partaidetza handixeagoa izan da historikoki emakumezkoena baino. Hala eta guztiz ere, joera hori apur bat aldatu egin da 2018an; hala, Gipuzkoako emakume helduen % 42,5ek adierazi du parte hartu duela ikaskuntza-jardueraren batean azken urtean. Gizonezkoen tasa, aldiz, % 39,5ekoa da.

Alde horretatik, esan genezake emakumeek ikaskuntza-jardueretan izan duten partaidetzaren bilakaera hobea izan dela –oraindik ere baieztatzeko dago datozen urteetan joera horrek jarraituko ote duen–, eta, hala, partaidetza hori 3,9 puntu handitu dute 2017ko datuekin alderatuta, eta ehuneko 5,1 puntu 2016ko datuekin konparatzen badugu. Gizonezkoek, berriz, murriztu egin dute partaidetza: ehuneko 3,2 puntu gutxiago iaz baino.

Tipologiaren arabera, ikaskuntza ez-arautua da emakumeen zein gizonezkoen ikasteko modu nagusia (% 37,7 eta % 34,1, hurrenez hurren), eta bilakaera positiboa erregistratu da emakumeen kolektiboan. Aldiz, gizonezkoen taldean apur bat murriztu egin da ehuneko hori (ehuneko 4,2 puntu gehiago eta 3,0 puntu gutxiago, hurrenez hurren).

Bestalde, ikaskuntza formalari erreparatuta, emakumezkoen parte-hartzea handiagoa da (2017an % 8,2 izatetik, 2018an % 9,5 izatera igaro da) eta gizonezkoetan, berriz, berdin jarraitzen du (2017an % 10,1 izatetik, 2018an % 10,5 izatera).

1. taula Ikasten duten pertsonak, ikaskuntza motaren eta sexuaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %

	2016	2017	2018
Ikasten duten emakumezkoak	37,4	38,7	42,5
Ikaskuntza formala	7,1	8,2	9,5
Ikaskuntza ez formala	34,0	33,5	37,7
Ikasten duten gizonezkoak	42,8	42,8	39,5
Ikaskuntza formala	9,2	10,1	10,5
Ikaskuntza ez formala	36,4	37,1	34,1

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.


2.2. Ikaskuntza, adina eta prestakuntza

Ikaskuntzako parte-hartzeak nabarmen egiten du behera adinean aurrera egin ahala

Aurreko urteetan gertatu den moduan, bizitza osoko ikaskuntzako jardueretako parte-hartzea nabarmen jaisten da pertsonen adinak aurrera egiten duen neurrian. Hala,

- Gipuzkoako 25 eta 34 urteko pertsonen erdiek baino apur bat gehiagok (% 53,8) eta 35 eta 44 urte bitarteko erdiek pasatxok (% 55,0) ikasi egiten dute, eta ehuneko hori ia pertsonen erdietara iristen da (% 44,2) 45 eta 54 urte bitarteko pertsonetan. Finean, eta oro har esateko, Gipuzkoan 25 eta 54 urte bitarteko bi pertsonatik batek ikaskuntza-jardueraren bat egin du azkeneko hamabi hilabeteetan.
- Partaidetza-ratio hori jaitsi egiten da adinean aurrera egin ahala; hartara, 55 eta 64 urte bitarteko pertsonen % 31,9k ikasten du, eta adin larriagoko pertsonen (65 eta 74 urtekoak) % 16,3k.
- Nabarmentzekoa: gazteen kolektiboaren eta 65 urtetik gorakoen taldearen artean, ikaskuntzan parte hartzeko tasan ageri den etena ia 40 puntukoa da (% 37,5).

2. grafikoa Ikasten duten pertsonak, adinaren arabera




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

Ikasketa-maila handiena duten pertsonek ageri dute parte-hartze handiena ikaskuntzan

Atxikitako grafiko honetan ikus daitekeen moduan, ikaskuntzako parte-hartzea handitu egiten da hezkuntza-maila gorena iristean. Hala,

- Gipuzkoan unibertsitate-ikasketak dituzten helduen % 62,7k dio parte hartu duela bizitza osoko ikaskuntzako jardueraren batean azkeneko urtean. Proportzio horrek antzeratsu jarraitu du azkeneko hiru urteetan; hori dela eta, ondoriozta dezakegu ikasketa tertziarioak dituzten hiru pertsonatik bik ikasi egiten duela.
- Partaidetza-tasa hori apalagoa da bigarren mailako ikasketak dituztenen artean; izan ere, % 35,2ra murrizten da (ehunekoa egonkor mantendu da azken hiru urteetan kasu honetan ere).
- Bestalde, lehen mailako ikasketak dituzten sei pertsonatik batek bakarrik adierazi du ikaskuntza-jardueraren bat egin izana azkeneko hamabi hilabeteetan (% 16,4). Kolektibo horren portaera aldakorragoa da urtez urte -kontuan izanda dimentsio apalagoko taldea dela eta, batez ere, adin nagusiagoko pertsonak dituela—.

3. grafikoa Ikasten duten pertsonak, ikasketa mailaren arabera



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

2.3. Ikaskuntza eta lan-merkatuarekin duen harremana

Lanean diharduten bi pertsonatik batek (enplegu ordaindua) ikasi egiten du

Ikaskuntza-jardueretan parte-hartzea handiagoa da pertsona aktiboetan (enplegu ordaindua dutenetan eta langabezian daudenetan). Hain zuzen, enplegu ordaindua duten bi pertsonatik batek (% 51,0) eta langabezian dauden bi pertsonatik ia batek (% 42,5) adierazi du parte hartu duela ikaskuntza-jardueraren batean azken hamabi hilabeteetan. Era berean, bai enplegu ordaindua duten pertsonetan, bai langabezian daudenetan, partaidetza-tasa horiek egonkor samarrak izan dira azkeneko hiru urteetan, eta aldakuntzak ez dira oso esanguratsuak izan.

Bestetik, nabarmentzekoa da, ikaskuntza-jardueretan parte hartzeari dagokionez, honako bi kolektibo hauek 2018an izan duten hazkundea: batetik, erretiratuek (ehuneko 7,5 puntu gehiago) eta, bestetik, ordaindutako lan-merkatuan sartu gabeeak (ehuneko 7,6 puntu gehiago), % 22ko eta % 13,6ko partaidetza-tasak lortu baitituzte, hurrenez hurren.

Aurreko urteetan erregistratutako balioak baino handiagoak dira, eta sendotzen ote diren ikusi beharko da. Nolanahi ere, lan-munduan txertatutako pertsonen kasuan erregistratutakoak baino nabarmen apalagoak dira.

2. taula Ikasten duten pertsonak lan merkatuarekin duten harremanaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %

	2016	2017	2018
Enplegua dauka	51,5	50,4	51,0
Langabezian dago	41,9	45,7	42,5
Jubilatuta	13,3	14,5	22,0
Lan merkaturatu gabea	10,3	6,0	13,6
Guztira	40,1	40,7	41,0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

3. Nork ikasten du?

3.1. Ikasten duten pertsonen karakterizazioa

Ikasten duten pertsonen profila: lan egiteko adinean dauden pertsonak, goi-mailako ikasketak eta ordaindutako lana dituztenak

Gipuzkoan ikasten duten herritar helduen karakterizazioa ez da gehiegi aldatu urteetan zehar. Zehazki, eta azkeneko emaitzei dagokienez,

- la oreka bat dago sexuaren arabera parte hartzean, 2018 emaitzetan emakumezkoen (% 51,8) parte hartzea gizonezkoena (% 48,2) baina zertxobait altuagoa bada ere. Dena den, sexuaren arabera eman den aldea ez da adierazgarria.
- Gipuzkoako egitura demografikoarekin bat eginez, erdiko adin tartean duten pisu erlatiboa handiagoa da gainontzekoak baino. Ikasten duten hamar pertsonatik bederatzik baino gehiagok 65 urte baino gutxiago dituzte. Zehazki, ikasten duten pertsonen % 20,8k 25 eta 34 urte bitartean ditu; % 32,7k, berriz, 35 eta 44 urte artean, eta hamar lagunetik lauk 45 eta 64 urte (% 39,9). Gainerako % 6,5ek 65 urte baino gehiago ditu.
- Pertsonak eskuratutako gehieneko ikasketak-maila ere erabakigarria da bizitza osoko ikaskuntzarekin jarraitzeko: ikasten duten pertsonen % 56,5ek goi-mailako ikasketak ditu, % 34,2k bigarren mailakoak, eta % 9,2k bakarrik ditu lehen mailako ikasketak.
- Eta, bereziki, lan merkatuarekin harremana duten pertsonak ikasten dute. Hori dela eta, arrazoi profesionalek hainbesteko garrantzia dute ikasten jarraitzeko.

Ikasten duten hamar pertsonatik zazpik ordaindutako lana daukate (% 71,7) eta % 9,2, berriz, langabezian dago.

3. taula Ikaskuntzako jarduerak egin dituzten pertsonen ezaugarriak

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %

	2016	2017	2018
Sexua			
Gizonezkoak	54,2	52,9	48,2
Emakumezkoak	45,8	47,1	51,8
Adina			
25-34 urte	25,1	21,0	20,8
35-44 urte	35,6	34,3	32,7
45-64 urte	35,6	40,1	39,9
65 urte eta gehiago	3,6	4,6	6,5
Ikasketa maila			
Lehen mailako ikasketak	7,5	14,9	9,2
Bigarren mailako ikasketak	37,7	38,6	34,2
Goi mailako ikasketak	54,8	46,5	56,5
Lan merkatuarekin duen harremana			
Enpleguarekin	78,7	77,5	71,7
Langabezian	13,2	12,8	9,2
Erretiratua	6,3	6,7	13,1
Lan merkaturatu gabe	1,8	3,0	6,0
Guztira	100,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

3.2. Ikaskuntzako jardueretan parte hartzen ez duten pertsonak

Ikasten ez duten pertsonen profila: adinean aurrera egindakoak, unibertsitate-ikasketarik gabeak eta ordaindutako lan-merkatuan sartu gabeak

Ondorio gisa eta ikaskuntzan parte hartzen duten pertsonen profilarekin bat, bizitza osoko ikaskuntzan parte hartzen ez duten pertsonak ondoren zehaztutako ezaugarri hauek izan ohi dituzte:

- Antzeko parte hartzea sexuaren arabera, gizonetako (%51,3) neurri zertxobait altuagoan ikasten ez dutela adierazi badute ere emakumezkoekin (% 48,7) alderatuta. Dena den, egoera hau puntuala da (2018) eta ez da adierazgarria.
- Ikaskuntza-jardueretan izandako parte-hartzea murriztu egiten da adinean aurrera egin ahala; hortaz, ikasten ez duten pertsonak eskuarki 45 urtetik gorakoak dira. Hala, ikasten ez duten pertsonen % 45,5ek 45 eta 64 urte bitartean du, eta % 23,4k, berriz, 65 urte baino gehiago dauzka.
- Lortutako ikasketa-maila gorenari dagokionez, ostera, ikasten ez duten pertsonen % 76,6 lehen mailako ikasketak dituztenak dira, edota bigarren mailakoak egindakoak (% 32,7 eta % 43,9, hurrenez hurren). Emaitza hau guztiz baldintzatuta dago pertsonen adinarekin².
- Azkenik, pertsonak lan-merkatuarekin duten harremana aztertuta, ikasten ez duten pertsonen % 48,0k enplegu edo lanbide ordaindua dauka; % 8,7 langabezia-egoeran dago, % 32,3 erretiratuak dira eta % 11,0 ez da sartu ordaindutako lan-merkatuan.

² Kontuan izan behar da Gipuzkoako biztanleriaren batez besteko ikasketa mailaren hobekuntza (eskuratutako ikasketa maila) azken lau hamarkadetan, hori dela eta, adin gehiago duten pertsonak ikasketa maila baxuena dute ikastek egiten bizi izan zuten momentuagatik, eta ez (soilik) ikasi nahi ez zutelako.

4. taula Ikaskuntzako jarduerak egin dituzten eta egin ez dituzten pertsonen ezaugarriak, 2018

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %

	Ikasten duten pertsonak	Ikasten ez duten pertsonak
Sexua		
Gizonezkoak	48,2	51,3
Emakumezkoak	51,8	48,7
Adina		
25-34 urte	20,8	12,4
35-44 urte	32,7	18,6
45-64 urte	39,9	45,5
65 urte eta gehiago	6,5	23,4
Ikasketen maila		
Lehen mailako ikasketak	9,2	32,7
Bigarren mailako ikasketak	34,2	43,9
Goi mailako ikasketak	56,5	23,4
Lan merkatuarekin duen harremana		
Enpleguarekin	71,7	48,0
Langabezian	9,2	8,7
Erretiratua	13,1	32,3
Lan merkaturatu gabe	6,0	11,0
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

3.3. Ez ikasteko arrazoiak

Familiako erantzukizunak mantentzen dira ikasteko traba nagusi bezala, populazioaren esanaren arabera

Ikerlana egiten hasi zenetik (2008 urtean) bi arrazoi nagusi daude ikasteko oztopo bezala aipatu direnak, hauek familiako ardurak eta motibazio falta dira. Arrazoi hauek ikerketa hasi zenetik urtero gutxienez hiru pertsonatik batek adierazi ditu ez ikasteko arrazoi bezala.

2018ko inkestako emaitzek bi arrazoi hauen garrantzia baieztatzen dute baina nabarmendu behar da familiako erantzukizunak izan direla, urtero bezala, gehien adierazitako arrazoa (%35,0) eta motibazio faltaren gaitetik (%31,9).

Bi arrazoi hauei hirugarren arrazoi bat gehitu behar zaio: prestakuntzaren ordutegia eta lan-ordutegiaren bateraezintasuna dela eta aurkitzen diren zailtasunak: 2018an hiru pertsonatik batek (%30,4) adierazi du eta aipatu behar da azken urteetan garrantzia irabazten ari den arrazoa dela (%26,7tik %30,4ra).

5. taula Azken 12 hilabeteetan ikaskuntzako jardueraren batean parte ez hartzeko arrazoiak

azken urtean ikaskuntzako jarduerak egin ez duen 25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %

	2016	2017	2018
Familiako ardurek eragozten didate	33,7	42,6	35,0
Ez dut motibaziorik	35,9	31,7	31,9
Prestakuntza ez da laneko nire ordutegiarekin bateragarria	26,7	27,4	30,4
Ez dut horretarako adinik, zaharra naizela uste dut	19,7	12,3	16,8
Ez ditudala behar uste dut, nire ezagutzak nahikoak dira	11,8	17,7	13,5
Kostua handia da, ezin dut ordaindu	16,1	8,8	11,4

Erantzun anitza

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

Gainerako arrazoiak nabarmen neurri txikiagoan aipatzen dituzte. Horien artean honako hauek ageri dira: nagusiegi sentitzea (% 16,8), trebakuntzarik ez dutela behar uste izatea eta egun dituztenak nahikoa direla pentsatzea (% 13,5), eta jardueraren kostua garestiegia izatea (% 11,4).

Pisu erlatibo txikiagoa izateaz gain, azkeneko hiru urteetan ez da modu esanguratsuan aldatu garrantzi-maila hori; hartara, ikaskuntza-jardueretan parte-hartzea zailtzen duten arrazoiak honako hauek dira: familiako erantzukizunak, motibazio-falta eta ordutegiak eragindako zailtasuna.

Generoen arteko aldeek hor jarraitzen dute: familiako erantzukizunak dira emakumeek emandako arrazoi nagusiak, eta motibazio-falta, berriz, gizonezkoek adierazitakoak

Seriearen hasieratik nabarmendu dira alde nagusiak emakumeek eta gizonezkoek aipatutako arrazoiaren artean, ikaskuntza-jardueretan parte ez hartzeko justifikazioak ematean. Alde horiek beren horretan jarraitu dute urteak joan eta urteak etorri, eta 2018an ikasten ez duten emakumeen % 45,5ek esan du ez ikasteko arrazoi nagusia familiako erantzukizunak direla, gizonen kasuan % 25,0ek adierazi du. Generoaren arteko etena alde horretatik esanguratsua da (20,5 puntuko aldea) eta proiektuaren hasiera-hasieratik (2008) jarraitzen du, aldakuntzekin bada ere.

6. taula Ikaskuntzako jardueraren batean parte ez hartzeko arrazoiak, sexuaren arabera

azken urtean ikaskuntzako jarduerak egin ez duen 25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %

	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Familiako ardurek eragozten didate	32,7	31,1
Ez dut motibaziorik	31,5	29,4
Prestakuntza ez da laneko nire ordutegiarekin bateragarria	25,0	45,5
Ez dut horretarako adinik, zaharra naizela uste dut	15,7	17,9
Ez ditudala behar uste dut, nire ezagutzak nahikoak dira	14,5	12,3
Kostua handia da, ezin dut ordaindu	8,9	14,0

Erantzun anitza

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua

Bestalde, gizonek motibazio-falta aipatzen dute ikaskuntza-jardueretan parte hartzeko traba nagusi gisa (% 32,7). Arrazoi hori bigarrena da emakumeen kasuan (% 31,1), nahiz eta lehendabiziko arrazoiaren aldean distantzia handia ageri duen (14,5 puntuko diferentzia). Gizonezkoek aipatutako bigarren oztopoa –eta emakumeek esandako hirugarrena– trebakuntza-jardueraren eta lan-ordutegiaren arteko bateraezintasuna da (% 31,5 eta % 29,4, hurrenez hurren).

Gainerako trabak (nagusiegi sentitzea, garestia izatea eta ordaindu ezin izana, edota ikastea ez dela beharrezkoa eta nahikoa ezagutza badutela) neurri txikiagoan aipatzen dituzte bai gizonezkoek, bai emakumezkoek.

Bizitza osoko ibilbidean ikasteko trabak aldatu egiten badira ere, familiako erantzukizunak dira behin eta berriz adin-talde desberdinetako lehen oztopoa

Ikaskuntza-prozesuan parte hartzea galarazten duten arrazoen arteko aldeak nabariak dira pertsonen adin-taldearen arabera. Nahiz eta alde horiek izan, bada traba bat kontuan hartutako adin-talde guztiek aipatu dutena: familiako erantzukizunak. Alde horretatik, adin-talde bakoitzeko hiru pertsonatik batek behintzat aipatzen du oztopo hori, hots, neurri txikiagoan aipatzen dute gazteenak (25-34 urte, %28,3) eta zaharrenak (65 urte eta gehiago,% 26,5).

Horrez gain, 25 eta 44 urte arteko pertsonetan, aipatutakoa traba garrantzitsua izanda ere, oztopo nagusia zera da, trebakuntza eta lan-ordutegia ez direla bateragarriak, adin tarte hauetako pertsonen erdiak gutxienez adierazi dute (% 58,3 eta % 52,2).

Eta 45 urtetik gorako pertsonetan, motibazio-falta indartu egiten da ikaskuntza-prozesua oztopatzen duen arrazoi gisa (% 38,2, 45-64 urtekoek eta % 38,9, 65 urte eta gehiagokoak).

7. taula Ikaskuntzako jardueratan batean parte ez hartzeko arrazoiak, adinaren arabera

azken urtean ikaskuntzako jarduerak egin ez duen 25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %

	Guztira	Adin taldeak			
		25-34	35-44	45-64	>65
Familiako ardurek eragozten didate	35,0	28,3	46,7	36,4	26,5
Ez dut motibaziorik	31,9	11,7	21,1	38,2	38,9
Prestakuntza ez da laneko ordutegiarekin bateragarria	30,4	58,3	52,2	28,2	2,7
Ez dut horretarako adinik, zaharra naiz	16,8	1,7	3,3	14,1	40,7
Ez ditudala behar uste dut, nire ezagutzak nahikoak dira	13,5	20,0	11,1	16,8	5,3
Kostua handia da, ezin dut ordaindu	11,4	20,0	16,7	10,5	4,4

Erantzun anitza

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua




Hau da, aurrez aipatu dugun moduan, Gipuzkoako gizartearen aburuz, ikaskuntzan parte hartzeko traba nagusiak ordutegien bateraezintasuna eta familiako erantzukizunak dira, nahiz eta haien garrantzi-maila aldatu egiten den adinaren arabera.

Nabarmentzekoa: motibazio-falta oztopo esanguratsua da 45-64 urte arteko pertsonen artean (% 38,2), nahiz eta oraindik etengabeko prestakuntza eskatzen duen lan-bizitzako aldia duten aurrez aurre.

4. grafikoa Hiru arrazoi nagusiak ikaskuntzan parte ez hartzeko, adinaren arabera

azken urtean ikaskuntzako jarduerak egin ez duen 25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua

Metodologia: ikaskuntza-definizioen aplikazioa, neurketaren jarraikortasuna eta nazioarteko alderaketa bermatzen dituztenak

Gipuzkoako pertsona helduek egindako ikaskuntza-jardueren ezagutza urteko inkesta bat egitean oinarritzen da. Definizioak³ eta edukiak mantentzeak neurriaren jarraikortasuna bermatzen du, eta batez ere, nazioarteko alderagarritasuna. Zehazki, ikerketa-lerro honetan ikaskuntzako hiru kategoria handi hartzen dira kontuan:

- Ikaskuntza formala: heziketa- eta prestakuntza-zentroetan garatzen da, eta diplomak eta egiaztatutako prestakuntza lortzen dira.
- Ikaskuntza ez-formala: modu antolatuan eta iraunkorrean gauzatzen da, baina ez da titulu ofizialik eskuratzen. Ikaskuntza mota hori erakundeetan eta erakundeetatik kanpo eskura daiteke (bizitzan moldatzeko tresnak, lanarekin lotutako ikastaroak, kultura orokorra, marrazketako eskolak...).
- Ikaskuntza informala: ikasteko helburuarekin gauzatutako jarduera gisa definitzen da, baina nor bere kabuz egiten du, erakundeetara jo gabe. Ikaskuntza ez-formalaren kasuan baino antolaketa eta egituraketa gutxiagorekin eskuratzen dira ezagutzak; esaterako, familian, lanean edo norberaren eguneroko bizitzan gertatzen diren ikaskuntza-jarduerak dira.

Bizitza osoko ikaskuntzako parte-hartze tasa⁴ pertsonak ikaskuntza formaleko eta ez formaleko jardueretan parte hartzetik abiatuta osatzen da.

³ Eurostaten metodologia.

⁴ Ikaskuntza informalak osatzen du ikaskuntzaren ikuspegi orokorra, baina ez dugu sartu kontaktetan, oso subjektiboa (norbere kabuz ikasten dena) eta herrialde batetik bestera oso irregularra baita. Iturria: Eurostat.



Titulua:	Pertsonen parte hartzea bitzita osoan zeharreko ikaskuntzan Gipuzkoan 57. dokumentua, 2018koapirila
Koordinazioa eta gainbegiratzea:	Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua
Egilea:	IKEI, research & consultancy S.A.
Landa- lana: Gipuzkoa	Gipuzkoan bitzita osoan zeharreko ikaskuntzari buruzko inkesta. Datakey, S.A, 2017.